

Lana / La obra

Zabaldu zen liburuaren azal hegala.
Tartean teilakatzeak, lekualdaketak
alfabeto kriptiko baten transkribaketak
eta gutxieneko zerbitzuen isil-apetak
–hitzak zein esaldiak janzteko plaketak
hontz kubista bati dagozkionak–.
Bela bat izan zen leihoaren ordezko apala.
Itxi zen liburuaren atzeko azala.

Bisitalditik atera baino lehen,
gurutzegrama-begizta bat jaso nuen,
horixe baita nire bidea eta zortea,
ezerezaren leize sakonean
ez erortzeko gertatu baitzaizkit ezkongai
begi aurreko amarrua eta lorea.

Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua /Título: **Eszenatokietako aztarnak hasten direnean**
Egilea / Autor: **Amaia Iturbide**
Saila / Colección: Poesia, 21
ISBN / EAN: 978-84-9746-720-9
Salneurria / Precio: 15 € (BEZ barne – IVA incluido)
Orri kopurua / Nº páginas: 168
Formatua / Formato: 20,5 x 13 cm

Egilea / El autor

Amaia Iturbide (Bilbo, 1961). Euskal Filologia ikasketak egina da Deustuko Unibertsitatean eta, besteak beste, Erandioko Euskaltegian lan egin du. Bost poema liburu argitaratu ditu: *Eskaileraren bi aldeetan* (1986), *Itzulbidea* (1992), *Gelak eta zelaiak* (1994), *Lore mutuak eta tuaren ezkontzak / Flores mudas y las bodas de la saliva* (2006) eta *Labirintoaren orduak* (2008); hurrengo ipuin liburuak: *Bidaiarik luzeenak* (2005) eta *Itzulerarik gabeko txartelak* (2008); eta saiakerok: *B. Gandiaga, J.A. Artze eta X. Leteren poemagintza* (2000) eta *"Mimodramak eta ikonoak" gidari, estetikan barrena* (2002). Juan Mari Lekuonaren, Gabriel Arestiren, Xabier Leteren eta Bitoriano Gandiagaren poemak itzuli ditu elebiduna den *Ahotsa, Hitzak, Hizkuntzak. Euskal Olerki-Antologia*-rako (2010) eta baita ere Josep Maria Sala-Valldauraren *Vidre fumat* eta *Flors i carboni* poema liburuetatik zenbait poema euskarara (2009).

ISBN: 978-84-9746-720-9
9 788497 467209